



TOLOSAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Arau Subsidiarioen determinazioak jabetzaren errealitatera eta Albizurrekin udal eremuaren mugapenari egokitzen da. 807 zonaren forma aldatu eta 808 zona deuseztatu behar dira errealitate honetara egokitzeko.

Horregatik guztiarengatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.**
- 2.- 807 zona katastralaren mugapena aldatzen da.**
- 3.- 808 zona katastrala deuseztatzen da.**

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralaren plano.